

FAKULTATEKO KONTSUMOAREN DATUAK.URTEKO DATUAK

PAPER KONTSUMOA

(Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotza)

Laugarren urtez jarraian, paper kontsumoa murriztea lortu dugu Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotzan. 2018an, guztira, 295.500 orri kontsumitu dira, hots, 2017an baino 23.500 orri gutxiago.

2015	2016	2017	2018	Dif. 2017
357.500	338.500	319.000	295.000	23.500

BEIRA (Fakultatea)

2015	2016	2017	2018	Dif. 2017
39,1kg	46,9kg	30,9kg	39,6kg	+8,7kg

ONTZIAK* (Fakultatea)

2018an, guztira, 767 kg. bildu dira ontzien eta ontzietako hondakinen gaikako bilketan, aurreko urtean baino 241 kg. gutxiago.

2015	2016	2017	2018	Dif. 2017
808,5	723	1008	767	-241 Kg

*Kg = kilogramoak (litro 1 paper = 0.32 kg eta litro bat plastiko 0,05 kg)

PAPERA BIRZIKLATZEA Kg.

(iturria: Beotibar Recycling S.L.)

Paper gutxiago kontsumitu denez, gutxiago birziklatu da 2018an. Guztira, 7.410kg. birziklatu ziren, hots, 2017an baino 1.505 kg. gutxiago.


2015	2016	2017	2018	Dif. 2017
8.560	7.740	8.915	7.410	-1.505kg

KAFE MAKINETAN EDALONTZI BERRIAK...NORA BOTAKO DITUT?

Ohartuko zineten moduan, duela hainbat hilabetetik, Fakultateko kafe makinek kartoizko edalontziak ematen dituzte. Honek nahasketa sortu du erabiltzaileen artean; ordura arte, plastikozko edalontziak izanik, edukiontzi horira botatzen ziren, baina orain, edukiontzi urdinean birziklatu behar dira. Gaur egungo edalontzien osagaia %92an papera da eta %7an polietilenoa, hortaz, paperarekin batera birziklatu behar da. Polietileno ehuneko baxu horrek ez du birziklatze prozesua kutsatzen, hori dela eta, paper industrian birziklatu eta paper birziklatua sortzeko balio du. Edalontzi berri horiek hobekuntza dakarte, batetik, paper kilo bat birziklatzea %85 merkeagoa baita, eta, bestetik, atmosferara isuritako CO2 kopurua nabarmenki baxuagoa baita plastikoaren birziklatzean isurtzen denarekin alderatuz.

Hala eta guztiz ere, aukera hoberena nork berak bere edalontzia erabiltzea da, hondakinak ez sortzeaz gain, kafea 0,25€ kostatuko baitzaizu, 0,30€ kostatu beharrean.

Zure edalontzia erabiltzeko, aurreko kafe makinetan, "edalontzirik gabe" markatu behar zenuen kafea eskatu aurretik. Orain, makina berriek, edalontzia sartzen duzunean, automatikoki berau detektatu eta deskontua aplikatzen du.



	2015	2016	2017	2018
Guztira	46944	49173	47245	59305
Edalontzirik gabe	3202	9293	7959	7306
% Edalontzirik gabe	6,82	18,90	16,85	12,32

Mesedez ez inprimatu aldizkari hau, espresuki pantailan ikusteko eginda dago. Aurrez dezagun toner/tinta eta papera!.

Hemen proposatutako ideien bat gauzatu nahi baduzu eta ez badakizu nola egin, edo iradokizun, ideia edo proposamenen bat baldin badaukazu, jar zaitez gurekin harremanetan honako helbide elektroniko honetara zuzenduta: gkz.ekoscan@ehu.es



PAPERIK GABEKO EGUNA

Aureko abenduaren 14an PAPERIK GABEKO EGUNAren 6. Edizioa ospatu genuen Fakultatean.

Oraingoan, zoritxarrez, Paperik Gabeko Eguna azterketa batekin kointziditu zuen eta irakasleak azterketak inprimatu behar izan zituen (500 bat gutxi gorabehera). Horrek, lehen aldiz, Paperik Gabeko Egunean aurreko ostiraletan, batez beste, inprimatu ziren orri kantitatea gainditzea eragin zuen. Guztira, Atezaintza, Idazkaritza eta Dekanotzan 1.133 orri inprimatu ziren egun horretan, eta aurreko 8 ostiraletan, batz bestez, 829 orri inprimatu ziren. Hortaz, seigarren edizioan, %36,7 orri gehiago inprimatu dira.

Egunean zehar, **Traka Matrakak** sorturiko instrumentu bitxiak entzuteko aukera izan genuen. Jon Urrutiaren proiektuak gizarteak bazterturiko objektuak birziklatzen ditu, eta beraiekin musika-tresnak sortzen ditu. Fakultateko sarreran egon zen erakusketara hurbildu zirenak beraien musika-tresna sortzeko aukera ere izan zuten.

Mila esker zure parte-hartzeagatik!

PLASTIKOZKO TAPOIAK BILTZEKO EDUKIONTZIA

Ikasle batek helarazitako iradokizunari esker, plastikozko tapoiak biltzeko edukiontzia ipini da Fakultateko sarreran. SEUR fundazioarekin sinaturiko akordioari esker, Fakultateak BIZITZA BERRI BATERAKO TAPOIAK proiektuan parte hartuko du. Biltzen diren tapoiak birziklatzeko garaian ateratako etekinak osasun arazo larriak dituzten umeei laguntzera bideratuko dira.

Lehen txanda honetan, laguntza guztia Brunori bideratuko zaio. Bruno gurpil-aulkian dago gaur egun, hainbat ebakuntza eta ferula berezi ipini ostean ez baita ibiltzeko gai izan. Helburua Brunorentzat "bipedestadore" a erostea da, zutik ipintzea ahalbidetuko duen aparatua, eta pixkanaka, gurpil-aulkia uztera lagunduko duena. **Hemen ezagutu dezakezu Bruno.**

Tapoien edukiontzia Fakultateko sarreran aurkitu ahal izango duzu, boligrafo erabilien edukiontziaaren alboan.



Mesedez ez inprimatu aldizkari hau, espresuki pantailan ikusteko eginda dago. Aurrez dezagun toner/tinta eta papera!.

Hemen proposatutako ideien bat gauzatu nahi baduzu eta ez badakizu nola egin, edo iradokizun, ideia edo proposamenen bat baldin badaukazu, jar zaitez gurekin harremanetan honako helbide elektroniko honetara zuzenduta: gkz.ekoscan@ehu.es